



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

41. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Urtarrila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Pobrezia eta Gizarte-Bazterketa Europar Batasunean

Eurostaten txostenaren arabera, Batasunean 84 milioi pertsonak dute pobrezia-arriskuaren eragina, EB-27ren % 17ak, hain zuzen ere; bestalde, biztanleriaren antzeko kopuruak gabezia materialak ditu.

Estatu kideen artean, pobrezia-arrisku handiena Letonian, Errumanian eta Bulgarian dute; txikiena, aldiz, Txekiar Errepublikan, Holandan eta Eslovakian. Pobrezia-arriskuak haurrengan eta adineko pertsonengan du eragin handiena.

Batasunaren eta estatu kideen ikuspegi estatistiko eta grafiko zabala jasotzen du argitalpenak, eta lau atal handitan banatzen da: desberdintasunak, pobrezia, gizarte-bazterketa eta gizarte-babesa.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-EP-09-001/EN/KS-EP-09-001-EN.PDF

> Lisboako Estrategia: Ebaluazioa

Europako Batzordearen ebaluazio-txostenak jasotzen duenaren arabera, oro har, Lisboako Estrategiak eragin positiboa izan du EBan, nahiz eta helburu nagusiak ez bete (hau da, % 70eko enplegu-maila eta I+G-ean BPGren % 3ko gastua).

EBren enplegu-maila % 66ra iritsi zen 2008an (2000ko % 62aren aurrean), krisiaren eraginez berriz ere erori aurretik. Eta EBk I+G-an egindako gutzitiko gastua, BPGren zenbatekoetan adierazia, oso gutxi hobetu zen (2000ko % 1,82tik 2008ko % 1,9ra).

Lisboako Estrategia egiturazko erreforma egokietan oinarritu zen: I+G eta berrikuntza, lan-merkatuak (malgurtasuna, kualifikazioak eta etengabeko prestakuntza), enpresa-ingurunea eta finantza publikoak onbideratzea. Horiek guztiak EB globalizazioaren eta zahartzearen aurrean prestatzeko eta bere oparotasuna indartzeko funtsezko eremu gisa hartu ziren.

Hala ere, etorkizunari begira, argi dago Estrategiak antolaketa hobea izan beharko lukeela, krisiaren jatorrian funtsezko papera jokatu duten elementu kritikoetan arreta handiagoa jartzeko. Hain zuzen ere, kontrol zorrotza eta finantza-merkatuen arrisku sistemikoa, espekulazio-burbuilak (esaterako, higiezin merkatuetan) eta maileguak eragindako kontsumismoa. Mailegu horrek estatu kide batzuetan, produktibitatearen hazkundera baino handiagoak ziren soldata-igoerekin batera, gaur egungo kontu korrontearen defizit altuak bultzatu zituzten.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/growthandjobs/pdf/lisbon_strategy_evaluation_es.pdf



> Eskualdeetako Demografia-Proiekzioak 2030

Eurostaten proiektioek Europako eta bere eskualdeetako biztanleria pixkanaka zahartzen doala islatzen dute. 2008 eta 2030 artean biztanleria % 4 haziko dela aurreikusi arren, eskualdeen % 37an atzeraldi demografikoa aurreikusten da. Eskualde horien artean Euskal Herria dago, biztanleriaren % 3ko jaitsiera duela.

Zahartze-ratioa % 17tik % 24ra igotzea aurreikusten da. 2030ean Alemaniako Chemnitz eskualdea zaharrena izango dela aurreikusten da (% 37); beste muturrean, berriz, Inner London eskualde ingelesa dago (% 10). Euskal Herria lehenengotik hurbilago dago, % 28ko ratioarekin.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-10-001/EN/KS-SF-10-001-EN.PDF



KOHESIO-POLITIKA

> Kohesio-Politikaren Kontrol-Sistema

Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Orokorraren argitalpen honek 2007-2013 aldirako kohesio-politikaren kudeaketaren eta kontrol-sistemaren ikuspegi osoa eskaintzen du.

Labur-labur, kontrol-sistemaren funtzionamendua, bere zeregin nagusiak (kudeaketa- eta egiaztapen-agintaritzak), kontu-ikuskaritzaren eginkizuna, ebaluazio-tresnak eta irregulartasunen eraginak aurkezten ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/audit2009/audit2009_es.pdf

> Eskualde eta Hirietarako susperraldi ekonomikoaren Europako Plana: urtebete geroago


Eskualdeetako Lantaldearen txostenak susperraldi ekonomikoaren Europako Plana tokian-tokian aplikatzeari buruzko inkestaren emaitzak jasotzen ditu, EBko tokiko eta eskualdeetako agintarien iritzia araberak.

Gobernu erakunde desberdinen arteko koordinazio ezaren eta Plana mantso aplikatzearen ondorioz, Plana ez dela aski ezagutzen azpimarratzen du. Beraz, krisiari aurre egiteko dituen eraginaren ezagutza mugatua da. Halaber, susperraldi ekonomiko baten eta enplegu duinerako aukerak eskainiko dituen beste baten arteko desoreka dagoela aipatzen du, eta Plana eta bere ondorioak aplikatzeko mantsotasuna ere aipatzen du.

Azkenik, krisiaren eraginek lurraldearen kohesioa ahul dezaketela baieztatzen du, planteamendu desberdinekin arazo bereziak konpontzera bideratutako politiken bidez aurre egiten ez bazaie.

Informazio gehiago:

http://portal.cor.europa.eu/lisbon/news/Documents/EERP%20Key%20Findings/ES_Key%20findings.pdf



> INTERREG IVC proposamenen deialdia

Interreg IVC programako proposamenen hirugarren deialdiak EBko lurralde osoa barne hartzen du eta epea datorren martxoaren 5ean bukatzen da. Deialdia transferentziaren bidez praktika egokiak aprobetxatu eta garatu asmo duten kapitalizazio-sareen modalitateko proiektuetara bideratuta dago.

Halaber, proiektu irabazleek “bide azkarra” edo “fast track” etiketa eskuratzeko eskubidea izango dute; baita ere, programaren 2. lehentasunaren eremuan (garapen jasangarria) Batzordearen laguntza jasoko dute.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://www.interreg4c.eu/>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> 2008-2010 Lisboako Estrategiaren Ezarketa

Lisboako Estrategiaren ezarketaren inguruan Europako Batzordeak egindako neurketaren agiriaren ondorioek 2009an aurrerakuntza egon zela nabarmendu dute; horretaz gain, ekonomia- eta finantza-krisia izanda ere, Programan jasotako lehenetsunak indarrean jarraitzen dutela eta jarduera zehatzek erantzun egokiak topatzeko baliagarriak izan direla adierazten dute.

Erdietsitako lorpen garrantzitsuenen artean, Agenda Sozial Berritua hartzea, immigrazioari dagokionez politika komun baterantz aurrera egitea eta enpresa txikien aldeko Ekimena eta bere Ekintza Plana azpimarratzen dira.

Hala ere, jarduera politiko askok garapen handiagoa edo osatzeko beharra dute.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0678:FIN:ES:PDF>


> Kopenhageko Hitzarmenari Babesa

Urtarrilaren bukaeran Europar Batasunak klima-aldaketaren inguruko Kopenhageko Hitzarmenari babes ofiziala eman zion, eta isurtzeak murrizteari buruzko konpromisoak aurkeztu ditu.

Informazio gisa, EBk berotegi-efektuko gas-isurtzeak murrizteari dagokionez 2020rako ezarritako helburuak aurkeztu ditu. 1990ko mailekin alderatuta, % 20 gutxiago izango dira eta murrizketa hori % 30era jaisteko baldintzapeko eskaintza egiten du, beti ere beste herrialde igorle handiek murrizketa osoaren ahaleaginean dagokien zatia beren gain hartzen baldin badute.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/97&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=fr>



> 2010: Pobreziaren eta Gizarte-bazterketaren aurkako borrokaren urte Europarra

EBk 2010 urtea Pobreziaren eta Gizarte-bazterketaren aurkako Borrokaren Urte Europarra izendatu du. 80 milioi europar inguru (biztanleriaren % 15 baino gehiago) pobreziaren mailan (herrialdearen batez besteko soldataren % 60) edo maila horretatik behera bizi dira.

Hamar europarretatik bat familiako kide guztiak enplegurik ez duten familia batean bizi da, eta enplegua dutenen artean, % 8aren lanpostua ez da nahikoa pobreziatik irteteko.

EBren aurrekontuan 17 milioi euro esleitu zaizkio 2010 Urte Europarrari; horietatik 9 milioi estatu kideen jarduerentzat erabiliko dira.

Informazio gehiago:

Marko Estrategikoaren agiria

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=637&langId=es&furtherNews=yes>

> Europa 2020 Estrategia: Kontsulta Publikoa


Europa 2020 Estrategiaren inguruan kontsulta publikoaren prozesua egin zen azaroa eta urtarrila bitartean, eta prozesu horretan eskuratutako emaitzen lehen laburpena jasotzen duen agiria argitaratu du Batzordeak.

Eskualdeetako eta tokiko agintaritzen esparruaren arabera (120 erantzun), proposatutako gobernantzaren helburu eta xedapenen inguruan adostasun zabala dago. Guztietan ez bada ere, erantzun askotan mezu bera jaso da: gobernantzak estrategian duen eginkizuna areagotzea beharrezkoa da, gobernu-maila desberdinen artean elkartze osoa eta berdina bermatu dadin (maila anitzeko gobernantza).

Eta eskualdeetako eta tokiko agintari askok baieztatu dute strategiaren funtsezko esparruetan eskumen eta baliabide garrantzitsuak dituztela, eta horren arabera, erreformak benetan gauza daitezzen laguntza handia eman dezaketela.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/eu2020_public_consultation_preliminary_overview_of_responses_es.pdf



e-LIBURUTEGIA

> Enplegu Berrientzako Gaitasun Berriak: orain jokatzea

Gaur egun, lanerako adina duten hiru pertsonetatik batek prestakuntza urria du, edo ez du inolako prestakuntzarik. Horren ondorioz, erdi mailako prestakuntza duten pertsonen baino % 40 aukera gutxiago dute lan bat aurkitzeko. Prestakuntza-maila altua duten pertsonen enplegu-tasa % 84 da; prestakuntza-maila ertaina dutenena % 70 da eta prestakuntza-maila baxua duten pertsonena, berriz, % 49.

Batzordearen txostenak honako hau proposatzen du: a) Enplegatzaileei eta pertsoneri pizgarri handiagoak ematea, pertsonen prestakuntza hobetu dadin, eta prestakuntzan egindako inbertsioak esanguratsuak eta zentzuzkoak izatea, ez soilik finantzarioak; b) Hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuak zabaltzea, eta horrela, hezkuntza- eta prestakuntza-erakundeak berritzaileagoak izango dira eta ikasle eta enplegatzaileen beharretara hobe egokituko dira; halaber, ikaskuntzaren emaitza zehatzetan oinarritutako prestakuntzak garatzea; c) Lan-merkatuaren beharretara hobe egokituta dagoen gaitasunen konbinazio hobea eskaintzea; eta d) Gaitasunei dagokienez, etorkizuneko beharren aurreikuspen egokiagoa egitea.

Adituen ustetan, eremu hauek guztiek harremana duten elkarren artean, eta beraz, ekimen guztiei batera ekin behar zaie. Gainera, inplikaturako guztien ahalegin adostua behar da: enpresak, sindikatuak, hezkuntza eta prestakuntzaren hornitzaileak eta enplegu-zerbitzuak.

Nolanahi ere, CEDEFOPen azken proiektioen arabera (hezkuntza eta lanbide profesionalerako EBko erreferentzia-zentroa), hurrengo hamar urtetan laurogei milioi enplegu-aukera sortzea aurreikusten da. Lanpostu horietatik ia zazpi milioi berriak izango dira, eta horietako gehienek oso ondo prestatutako eskulana beharko dute.

Informazio gehiago (txostena ingelesez):

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=697&furtherNews=yes>

(CEDEFOPen oharra)

http://www.cedefop.europa.eu/EN/Files/9021_es.pdf



> Giro Soziala

Eurobarometroaren inkestak islatzen duenez (estatu bakoitzean 1.000 inkesta inguru), Europako biztanle gehienak orokorrean pozik daude euren bizitzarekin. Batez besteko emaitza +3,2 puntu da (-10etik +10era doan eskalaren barruan).

Hala ere, desberdintasun handiak daude estatu kideen artean: pozik egotearen maila altuena Danimarkan dago (+8,0); Suediak, Herbehereek eta Finlandiak ere maila altua dute. Maila baxuena Bulgarian (-1,9) dago; haren atzetik daude Hungaria, Grezia eta Errumania.

Europako biztanleek pozik ez daudela erakusten dute, bereziki euren herrialdeetan desberdintasunari eta pobrezari aurre egiteko hartzen diren jarreraren aurrean. Eta, halaber, zerbitzu publikoei dagokienez, euren administrazio publikoak kudeatzeko moduarekin ez daude batere pozik, nahiz eta osasun-laguntza modu positiboan baloratu.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_315_en.pdf

> Kohesio-Politikaren etorkizuna Eskualde Aberatsetan

REGIOren Zuzendaritza Orokorraren lanaren agiriak eskualde aberatsenetan kohesio-politikaren etorkizuna aztertzen du. Horrela, banatze-transferentzien politikak aldaketa eta garapen ekonomikoaren sustapenerako politiken aurrez aurre jartzen ditu.

Eta eskualde aberatsetan kohesio-politika mantentzearen aldeko eta aurkako argudioen azterketa sakona egiten du: konstituzionalak, politikoak, ekonomikoak eta gobernantzakoak eta administratiboak.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/work/2009_03_richer.pdf



ADIERAZLEAK

> Enpresetako informazio- eta komunikazio-teknologiak

Europako enpresen % 93a (10 edo enplegu gehiago dituztenak) Internetera sartzen da eta % 82ak banda zabaleko konexioa du, Eurostatek 2009ri buruz emandako datuen arabera.

Bestalde, 2008an merkataritza elektronikoak guztizko salmentei egindako ekarpena % 12koa izan zen EBn. Azpimarratzekoa da negozio elektronikoak Irlandan, Finlandian eta Suedian duen presentzia; Bulgarian eta Zipren, aldiz, parte-hartzea oso txikia da.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=STAT/10/12&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>

> Langabezia-tasa

2009ko azaroari dagozkion langabezia-datuek jasotzen dutenez, hilabete horretan 22,9 milioi pertsona lanik gabe zegoen EBn. Langabezia-tasa % 9,5ekoa zen, aurreko hilabetearekin alderatuta portzentajezko hamarreko bat altuagoa eta azken urtekoa baino bi portzentaje-puntu altuagoa.


Langabezia-tasa altuenak Letoniak (% 22,3), Espainiak (% 19,4) eta Eslovakiak (% 13,6) zituzten. Kontrako muturrean, Holanda (% 3,9), Austria (% 5,5) eta Zipre (% 6,2) zeuden.

Baltikoko hiru errepublika txikietan langabezia bikoiztu egin da azken hamabi hilabetetan; Alemanian, aldiz, soilik portzentajezko bost hamarrekotan igo da, % 7,6ra iritsi arte.

Gipuzkoan, laugarren hiruhilekoan langabezia-tasa % 7,1era iritsi zen (Eustaten BJA inkesta) eta azken urtean barrena asko igo zen (aurreko urteko laugarren hiruhilekoan % 3,9koa zen).

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-08012010-AP/EN/3-08012010-AP-EN.PDF



> Konfiantza-adierazleak

Enpresaren eta kontsumitzailearen konfiantza-adierazleak berreskuratzeko bidean jarraitzen dute EBn. Urtarrilean sentimendu ekonomikoaren indizea 97,1era iritsi zen, 2009ko martxoari dagokion 68ko gutxieneko balioarekin alderatuta. Indizearen bost osagaietako lauri eragiten die hobekuntzak: industria, zerbitzuak, kontsumitzailea eta merkataritza. Eraikuntzak, berriz, gutxieneko balioetan jarraitzen du.

Konfiantza-maila altuena duten estatuak Suedia, Danimarka eta Italia dira; baxuena, berriz, Grezia, Zipre eta Errumania.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/documents/2010/bcs_2010_01_en.pdf